



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Europar Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera (EBTaren 50. artikulua)
EBtik ateratzeko Akordioa eta Aitorpen politikoa
Brusela, 2018ko azaroaren 25a**

Europar Batasuneko 27 estatu kidetako estatuburu eta gobernuburuak (guztiak Erresuma Batukoak izan ezik) azaroaren 25ean bildu ziren.

Europar Kontseiluak, Erresuma Batuko eta Europar Batasuneko talde negoziatzaileek joan den azaroaren 14ean adostutako Erresuma Batua EBtik ateratzeko Akordioa kontrahatu zuen eta baita etorkizuneko harremanen inguruko aitorpen politikoa onartu ere.

Era berean, Europar Kontseiluak Europako Batzordea, Europako Parlamentua eta Kontseilua gonbidatu ditu beharrezkoak diren xedapenak onartu ditzaten, Erresuma Batua EBtik ateratzeko Akordioa datorren 2019ko martxoaren 30ean indarrean sartu ahal izateko eta erretiratze ordenatua bermatzeko asmoz.

Ondorioen testuak EBko negoziatzaileen burua den Michel Barnier-en lana espreski eskertzen du.

Jarraian, EBtik ateratzeko Akordioaren eta Aitorpen politikoen laburpena; alde aurretik, bidezkoa da, bai Europar Batasunean bai Erresuma Batuan, EBtik ateratzeko prozesua dela eta gertatuko diren hurrengo pausuak birpasa.

HURRENGO URRATSAK

2019ko martxoaren 29an aterako da Erresuma Batua Europar Batasunetik, eta une horretan, trantsizio aldia hasiko da, baita etorkizuneko harremanetarako legezko akordioaren negoziazio formala ere.

2020ko abenduaren 31ean trantsizio aldia amaituko da. Trantsizio aldia zabalteko aukera bakarra existitzen da.

Trantsizio aldian aplikagarri izaten jarraituko dute Erresuma Batua EBko parte izatearen egungo aspektu gehienak, besteak beste, aduana-batasuna eta merkatu bakarra. Hala ere, Erresuma Batua ezin izango ditu bozkatu EBko erakundeen eta agentzien erabakiak.

Era berean, trantsizio aldian Arrantza Politika Komunaren ezarpena Erresuma Batua zabalduko da eta Erresuma Batua, arrantzari buruz EBak hartzen dituen erabakiak bete beharko ditu, kontsultatua izan daitekeen arren. Trantsizio aldia amaitu aurretik Arrantzari buruzko akordio berri bat sinatzea lehentasuna izango da.

Gibraltar-i dagokionez, hau ez da etorkizuneko erlazioei buruzko akordioaren lurralde eremuan barneratuko. Erresuma Batuak eta EBk ordea, Gibraltar-i buruzko akordio bereziak sinatu ahal izango dituzte; Espainiaren oniritzi espresa beharrezkoa izango da.

Europar Kontseiluko (50. art.) ohiz kanpoko bileraren ondorioak argitaratu eta etorkizuneko harremanaren gaineko Aitorpen politikoa amaitu ondoren, Erresuma Batuko Parlamentuko bi ganberatan eztabaida izango da. Komunen Ganberak Ateratze Akordioa onartzeko eta etorkizuneko harremanaren inguruko ebazpenaren alde egiten badu, Erresuma Batuko Gobernuak Ateratze Akordioa eta Ezarpen Legea aurkeztuko ditu, Erresuma Batuan Ateratze Akordioaren legezko baliozkotasuna emateko.

EBn, Europako Parlamentuak bere onespena eman beharko dio Ateratze Akordioa burutzeari.

ATERATZE-AKORDIOAREN EDUKI NAGUSIA

I. HERRITARREN ESKUBIDEAK

Erresuma Batuan bizi diren EBko herritarrek eta EBko estatu-kide batean bizi diren Erresuma Batuko herritarrek beren bizi-baldintza berak mantentzen jarraitu ahalko dute trantsizio aldia amaitu aurretik.

Bizilekua: Trantsizio aldia amaitu baino lehen legezko bizilekuaren eskubidea duten EBn bizi diren Erresuma Batuko herritarrak eta Erresuma Batuan bizi diren EBko herritarrak bizi diren herrialdeetan geratu ahalko dira. 5 urte igaro ondoren, behin betiko bizilekua izateko eskubidea izan ahalko dute. Akordio horrek beren familia-kideak ere babesten ditu. Europako araudiaren arabera, honako hauek izango lirateke familia-kideak: ezkontideak edo erregistratutako bikoteak, gurasoa, aitona-amonak, seme-alabak, bilobak, baita iraupen luzeko bikoteak ere.

Egoiliar izatearen estatusa: Erresuma Batuan bizi diren EBko herritarrek eta horien senideek egoiliar-estatus berria eskatu ahalko dute EB-n Kokapen Erregimenaren bidez (*EU Settlement Scheme*). Estatu-kideek ere antzeko prozedura ezartzeko aukera dute (irizpide objektiboetan oinarrituko dena) Erresuma Batuko herritarrek egoiliar-baimena eskatu dezaten.

Egoiliar-baimena eskatzeko prozedura: laburra eta sinplea izan behar da. Egoiliar-estatusa igortzeak ezin du kargurik sortu, edo nolana ere, antzeko egiaztagiria igortzeko eskatzen diren ildo bereko tasak ezarriko dira. Erresuma Batuari dagokionez, egoiliar-estatusa izateko kostua behin betiko bizilekua izateko dokumentuak eskuratzeak sortzen duen kostuaren antzekoa izango da.

Gainera, Erresuma Batuak konpromisoa hartu du lanbide-prestakuntzak aintzatesteko, baita gizarte-onurak jasotzeko eskubidea izateko ere, hala nola osasun-sistema edo pentsioak erabiltzeko aukera.

II. AKORDIO FINANTZARIOA

Ateratze Akordioak erabakitzen du Erresuma Batuak zer nolako eskubide eta obligazio finantzarioak izango dituen EBtik ateratzen den estatu-kide moduan, alderdi biek partekatzen dituzten honako printzipio eta konpromiso hauen arabera:

- Estatu-kide ezeinek ez du gutxiago ordainduko edo jasoko Erresuma Batua ateratzen delako.
- Erresuma Batuak EBko Estatu-kide moduan hartutako konpromisoen zati baten ardura hartu beharko du.
- Erresuma Batuak ez du ordaindu beharko EBko Estatu-kide moduan ordaintzea egokituko litzaiokeena baino gehiago.

Faktura ekonomikoaren behin betiko zenbatekoa finkatzeke geratzen da. Aurreikusten den zenbatekoa 35-39 milioi £ artekoa da.

III. MUGA IRLANDAREKIN

Ateratze Akordioak Protokolo bat jasotzen du Irlandarekin eta Ipar Irlandarekin. Protokoloaren arabera, bidaia komuneko eremuak (Common Travel Area) existitzen jarraituko du, eta Ipar Irlandan eta Irlandan Elektrizitatearen Merkatu Bakarrari legezko babesa ematen jarraituko zaio.

Protokoloak babes- edo larrialdi-mekanismo (backstop mechanism) bat ezartzen du, trantsizio aldiaren amaieran jarriko litzatekeena martxan (2020ko abenduaren 31n), baldin eta EBren eta Erresuma Batuen artean akordiorik lortzen ez bada. Protokolo horrek hiru helburu bete nahi ditu: Irlandako uhartean muga irmo bat ezartzea saihestea, Iparraldea-Hegoaldea eta Ekialdea-Mendebaldearen arteko lankidetzarekin jarraitzea eta Ostiral Santuko Akordioa babestea. Mekanismo hori Ateratze Akordioaren parte da eta indarrean izango da EBk eta Erresuma Batuak hori ordeztzeko beste akordio bat hartzen ez duten bitartean (epemuga 2020ko uztailaren 1a da).

Protokoloak aduana-lurralde komun bat ezartzen du EBren eta Erresuma Batuen artean, trantsizio aldiaren amaieratik etorkizuneko harremanen gaineko Akordioa indarrean jartzen den arte.

Horren arabera, aldi horretan:

- EBren eta Erresuma Batuen artean ez da aduana-tarifarik, kuotarik edo egiaztapenik ezarriko.
- Baldintza-berdintasuna ziurtatuko da EBren eta Erresuma Batuen artean. Horrek esaten duenaren arabera, Protokoloak Erresuma Batuari obligazioa ezartzen dio nazioarteko eta EBko estandarretan oinarritutako funtsezko arauak bete ditzan. Hau da, estatu mailako laguntzen gaineko arauak errespetatzea, ingurumen-estandarrek, estandar sozialak eta enplegu-arauak mantentzea, baita zenbait zerga-arau ere.

- Ipar Irlandan Europar Batasuneko Aduana Kodea ezarriko da; lurralde horretako enpresek beren produktuak Europako Merkatu Bakarrean zirkulatu ahalko dute murriztapenik gabe.

Gainera, Erresuma Batuak konpromisoa hartzen du eskubideak, zaintze-ardurak eta aukera-berdintasuna murriztu ez daitezzen, hala bermatzen baitu Ostiral Santuko Akordioak, eta Iparralde-Hegoaldea eta Ekialdea-Mendebaldearen arteko lankidetzak babesteko konpromisoa mantentzen du esparru politiko, ekonomiko, segurtasuneko, gizarteko eta nekazaritzakoen bidez.

Protokoloak legezko babes operatibo bat aurreikusten du, muga tinkorik ez existitzea bermatzeko.

2021eko urtarrilaren 1ean etorkizuneko harremana definitu gabe izanez gero, Erresuma Batuak bi aukera izango ditu: trantsizio aldiaren luzapen bakarra eskatzea edo babes-mekanismoa aktibatzea.

Protokoloak Erresuma Batuaren integritate konstituzionala eta ekonomikoa mantentzen du. Babes-mekanismoa konponketa iragankor bat baino besterik ez da, nahiz eta agian aukerarik onena ez izan, muga tinkoa saihesteko; hortaz, alderdi biek etorkizuneko harreman bat adosteko konpromisoa hartzen dute.

IV. ATERATZE-AKORDIOAREN GOBERNANTZA

Akordioak hainbat akordio instituzional aurreikusten du horiek ezarri, kudeatu eta modu eraginkorrean bete daitezzen, liskarren ebazpena barne.

Akordioaren interpretazioaren gainean eztabaidaren bat sortzen denean, kontsulta politiko bat egingo zaio Baterako Batzordeari. Akordiorik izan ezean, alderdi ezeinek arbitraje loteslea eskatu ahalko du. Eztabaida EBren araudiaren gainekoa denean, Batzordeak Europar Batasuneko Justizi Auzitegiarekin (EJ) kontsultatu beharko du nahitaez. Gainerako kasuetan, hautazkoa izango da.

Batzordearen akordioa loteslea izango da, eta betetzen ez bada isunak eta etenaldia ezarriko dira.

Ateratze Akordioaren arabera, Erresuma Batuko auzitegiek behar besteko arreta emango diete trantsizio aldiaren ondoren EBko araudiarekin erlazionatuta dauden EBJaren erabaki garrantzitsuei.

EB-REN ETA ERRESUMA BATUAREN ARTEKO ETORKIZUNEKO HARREMANEN INGURUKO AITORPEN POLITIKOA

Aitorpen horrek lankidetzak handi, zabal, sakon eta malgu baten parametroak ezarri nahi ditu, honako hauen bidez: lankidetzak komertziala eta ekonomikoa, legeak betetzea eta justiziaren penala errespetatzea, atzerriko politika, segurtasuna eta defentsa. Alderdien arabera, interesgarria izan daiteke etorkizuneko harremanak aitorpen politiko honetan deskribatutakoez gain beste arlo batzuk barneratzea. Etorkizuneko harreman hau EBk eta Erresuma Batuak partekatzen dituzten balioetan eta interesetan oinarrituko da.

Etorkizuneko harremanaren printzipio eta balio orokorrak

- Eskubideen eta obligazioen arteko orekan oinarrituko da, alderdi bakoitzaren printzipioak kontuan izanik. Oreka horrek ziurtatu behar du EBk izaera autonomoa duela erabakiak hartzeko, eta bat egin behar du EBren printzipioekin, bereziki Merkatu Bakarraren eta Aduana Batasunaren integritateari eta lau askatasunen banaezintasunari dagokionez. Era berean, Erresuma Batuaren subiranotasuna eta barne merkatuko babesak ziurtatu beharko ditu
- Etorkizuneko harremanari asmo handiz egin behar zaio aurre, bere irismena eta sakontasuna kontutan hartuz, eta era berean harreman hori bilakatu egin daiteke denboran zehar. Harremanak, EBko eta Erresuma Batuak herritarren interesen alde lan egin beharko luke, bai orain, bai etorkizunean.
- Hainbat baliotan oinarritu beharko litzateke, besteak beste, honako hauek errespetatu eta zainduz: giza eskubideak eta funtsezko askatasunak, printzipio demokratikoak, zuzenbide-estatua eta ez ugaritzea babestea. Erresuma Batuak konpromisoa adierazi beharko du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) esparrua errespetatzen jarraitzeko.

Printzipio, zehaztapen eta baldintza orokorrak ezarriko dira Erresuma Batuak EBko programetan parte har dezan, EBko instrumentutan ezarritako baldintzen arabera, elkarrizketa jarraia mantenduko da honako interes komuneko arlo hauetan: zientzia eta berrikuntza, gazteria, kultura eta hezkuntza, mugaz gaindiko garapena eta kanpoezintasuna, defentsa-gaitasunak, babes zibila eta espazioa. Helburua elkarkidetzarako aukerak bilatzea, esperientziak banatzea eta ekintza bateratuak egitea izango da. Horretarako, ekarpen finantzario egoki eta bidezkoa, finantza kudeaketa egokia eta parte hartzaileen bidezko tratamendua barneratu beharko dira.

Aztertu beharko da Erresuma Batuak zer nolako parte-hartzea izango duen Europar Ikerketarako Azpiegitura Partzuergoan (EIAP). Era berean, badago konpromisoa PEACE PLUS programa lantzeko, Ipar Irlandan berradiskidetzeko eta etorkizun partekatua izateko lana sustatze aldera, beti ere etorkizuneko programan egungo finantziazioaren proportzioak mantenduz.

Arlo ekonomikoan, bi alderdien arteko merkataritza- eta inbertsio-harreman bereziki garrantzitsua da. Izan ere, 45 urte baino gehiagoko ekonomia-integrazioa izan dute Erresuma Batua EBko estatu kide izan den bitartean.

Hori oinarri harturik, alderdiak ados daude lankidetzara ekonomikoa, handinahia, irismen zabalekoa eta orekatua garatzeko. Lankidetzara hori zabala izango da, eta merkatu libreko eremu bat barne hartzeaz gain, lankidetzara sektorial zabalago bat ere barne hartuko du, alderdi bien elkarrekiko interesekoa denean. Lehia ireki eta bidezkoa bermatzen duten xedapenetan oinarrituko da.

Alderdiek jarduera ekonomikoa arautzeko duten autonomia eta gaitasuna mantenduko dute, arlo publikoko politiketan helburu legitimoak lortzeko bakoitzak egoki deritzonean babes mailaren arabera.

Ipar-Irlandarako babes- edo larrialdi-mekanismoari dagokionez, bai Erresuma Batuak bai EBk konpromisoa berretsi dute konpromisoa dutela beste akordio batekin ordeztzeko, Irlandako uhartean muga finkorik ez gotea ziurtatuko duena.

Europako segurtasuna dela eta, segurtasun-lankidetzazabala, osoa eta orekatua ezarriko da. Lankidetzaz horrek hurbiltasun geografikoa eta agertzen ari diren mehatxuak hartu beharko lituzke kontuan, honako hauek barne: nazioarteko krimena, terrorismoa, zibererasoak edota desinformazio-kanpainak. Lankidetzaz horrek Erresuma Batuen subiranotasuna eta EBren autonomia errespetatu behar ditu.

Atzerriko politika, segurtasuna eta defentsaren arloan, lankidetzaz handinahia, estua eta iraunkorra sostengatuko da kanpoko ekintzan, herritarrak kanpoko mehatxuen aurka babesteko, baita Nazio Batuen eta NATOren bidez ere.

Marko instituzional orokorrak Elkarkidetzaz Akordio forma hartu lezake lankidetzaz-eremu zehatzen inguruko akordioak barneratuz. Etorkizuneko harreman horren forma legal zehatza ezartzea negoziazio formalen parte izango da.

Aitorpen politiko hau onartzen den eta Erresuma Batua EBtik ateratzen den bitartean, Erresuma Batuak eta EBk antolakuntza-lanak garatuko dituzte, negoziazio formalen garapen azkarra ziurtatzeko asmoz.

Erresuma Batuak EB modu efektiboan uzten duen momentutik aurrera, aurreikusi da alderdiek aldi berean negoziatuko dituztela beharrezko diren akordioak etorkizuneko harremanari forma legala emate aldera.